

gizartea eta kultura garaikidea

PROGRAMA  
EUSKARA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2022



ARTE BIZIAK / ARTISTA AZKIDEAK / PERFORMANCEA  
URT. 20 (ostg.)

# Sra Polaroiska

*Perlas, bailes, deseos, dudas y hallazgos*  
(*Perlak, dantzak, desirak, zalantzak eta aurkikuntzak*)

2019az geroztik Azkuna Zentroko artista Azkidea den Sra Polaroiskak (Alaitz Arenzana eta María Ibarretxe) *Perlas, bailes, deseos, dudas y hallazgos* performance hitzaldiarekin emango dio amaiera egonaldiari, eta, bertan, artistek hiru urte hauetan izan dituzten esperientzia batzuk partekatuko dituzte.

Kolektiboak *No hay edad para el ritmo* instalazioarekin ekin zion egonaldiari. Performance kolektibo horren ondoren, *Jakintsuen Kontseilua* proiektua abiarazi zuen, eta topaketa horietan hainbat lanbide-eremutako zortzi emakumek hartu dute parte: Dolores Juliano, Amaia Lasa, Garbiñe Mendizabal, Luisa Menéndez, Adelina Moya, Arantxa Urretabizkaia, Margarita Ledo, Rosa María Calaf eta Teresa Catalán.

Zikloari amaiera emateko fanzine hedatu bat emango da argitara, eta, bertan, gonbidatutako emakumeek partekatutako jakinduria jasoko da, Jakintsuen Kontseilua proiektuko saioetan Abigail Lazkoz, Conxita Herrero, Bea Aparicio, Juana García, Naiara Goikoetxea, Leire Urbeltz, Ruth Juan eta Raisa Alava artistek sortu dituzten kontakizun grafikoekin batera.

////////////////////////////////////  
Osteguna, urtarrilak 20

19:00

Lantegia 1

////////////////////////////////////  
 [cargocollective.com/srapolaroiska](http://cargocollective.com/srapolaroiska)

 [sra polaroiska](#)



**SRA. POLAROISKA. MARIA IBARRETXEK eta ALAITZ ARENZANAK** eraturako kolektiboa. Beren obrak zinema esperimentalak, ekintzako arteak, eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Artea saria irabazi zuten, sorkuntzan egindako jarduerarengatik, eta nazioarteko arte-zentro eta jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak.